


SUOMI:



Nazio baten askapena European

Txillardegi

Oso laburki, eta lan luzeago baten hitzaurre gisa, gogora dezagun Suomi (Finlandia erdaraz) Askatuaren sorrera.

Suomik bost miloi biztanle ditu larri-larrian (4.973.442 biztanle 1991an). Euskal Herriaren bikoitza, beraz. Hedadura geografikoaren aldetik askoz handiagoa bada ere: 338.000 km. karratu.

Estatua elebiduna da: suediera, batetik; eta suomiera, bestetik. Gehiengoa suomieraz mintzo da: % 94. Suedieraz mintzo den gutxiengoa, oso azkarra da.

Bi hizkuntza horiek arras desberdinak dira: suediera germanikoa da, alemanaren antzekoa nolazpait esateko. Suomiera, berriz, uralikoa da; eta izendapenak berak adierazten duenez, Uraletara jo behar da hizkuntz multzoaren jatorria bilatzerakoan. Europako ahaiderik hurbilena "eesti" izeneko hizkuntza da, estoniera.

Geure haurtzaroan "Finlandia, capital Helsingfors" ikasten genuen eskoletan; alegia, suedierazko izenaren arabera. Helsinki gero etorri zen. Eta hau aldaketen sinboloa da. (Suomi ere, "Finn-Land" zen, suedieraz).

Suomi, laburki, Suediaren kolonia izan zen luzaz; Irlanda, Britainia Nagusiarena izan zen bezala. Baina Errusia ondoan egonik, beti ibili izan dira suomitarrek batetik edo bestetik nola jaregingo. Horretara, Suediaren men-

petik Errusiaren menpera pasa zen Suomi 1809an.

Suediar eragina, dena dela, askoz ere sakonagoa izan zen. Aski da Angel Ganivet-en "Cartas finlandesas" liburu famatua irakurtzea, suediar ikutu hori ulertzeko.

Suomitar lehenengo alderdi abertzalea; alegia, Finlandiar Dukerri mailako "Autonomia" gainditzearen aldekoa, 1863an sortu zen. Suomiera (nazio-hizkuntza)ren



Akademia 1831an jaio zen. Geure burua hor kokatzen lagun gaitzaketen datak dira.

Helsingfors-eko Unibertsitatea suedieraz mamitu zen urte luzetan barrena. Unibertsitatera joan zitekeen jendea, bestalde, burgekumez osatua zen; eta Finlandia zaharreko burgeseria suedieraz mintzo zen, eta ez suomieraz.

1894an, beraz, Helsinkiko Unibertsitatean irakasle izateko suomieraz ere jakin behar zela erabaki zenean, protesta gaitzak izan ziren. Suomieraz ez baitzegoen, oro har, meza-liburuak besterik.

Baina abertzaletasuna gora zihuan. Eta Mosku-ko Aginteak hori galgatu behar zela pentsatu zuen. Eta gobernari gogor bat Helsingfors-era bidaltzea erabaki. Bobrikoff izango zen gizon hura.


Bobrikoffek errusiera hizkuntza nagusi jarri, bertako instituzio autonomikoak desegin, eta errusiartzte proze-soari ekin zion ausarki.

Europa guztia altxa zen Czar-aren aurka; eta 1899ko Otsailean, egun bakar batzutan, miloi erdi bat sinadura bildu ziren Moskuren politika zapaltzailea salatzeke.

1904ko Ekainaren 16an Evgen Schauman izeneko suomitar abertzale batek hil egin zuen balaz Bobrikoff errusiar gobernaria, eta segidan bere burua hil zuen.

Abertzaleak bi taldetan zatitu ziren. Batzuek Erresistentzia Armaturia eraiki nahi zuten; eta, istilu bila eta prestaketa osatzeko, Alemanira jo zuten. Joera honetan nagusi agertzen zirenak suediar-suomitar burgesak zirela azaldu beharrik ez dago.

Izenek berek erakusten dute jatorri bitasuna argiro: Mannerheim Mariskal, gerora Suomiko Lehendakaria izango zena; arestian aipatutako Schauman militar deserritua, etab. Josef Schauman liberala, berriz, Snell-



man unibertsitari famatua, eta abar luze bat, liberalak eta jokabide bortxagabeen aldekoak izanik ere, jatorri suediar bereberekoak ziren, deiturretan beretan ageri denez. (Schauman horiek, beraz, biga dira; ez bat. Kasu!)

Hain zuzen ere, Gandhiren eta Tolsoiren eraginez, bortxa-gabeko mugimendu azkar bat jaio zen Suomin. Berauen artean hizkuntzaren eta kulturaren aldeko joera antolatzen. Suomi suomieraz, alegia.

Abertzaletasunari buruz aski uzkur, azkenik, eta Lenin-en Iraultza esperantzagarriari begira, mugimendu "sozial-demokrata" indartsua ere jaio

zen; "lehendabizi klase-borroka" proposatu zuena, nazio-askatasuna gerorako utziz. (III. Internazionala jaio aurreko urteak dira, kontuz!)

Honek guztiak gerla zibilera eraman zuen Suomi; ondoriozko zauriak ez dira poliki baizik sendatu.

1939-1945 urteetan, mundu-gerla garaian ozta-ozta libratu ziren suomitarrak gerratetik. Baina Karelia osoa galdu zuten. Gerla-beharrak zirela eta okupatu egin zuen Stalinek. 1930 ondoko urteetako sarraskiak suomitarrek ezaguturik, ehun-milaka ihes egin zuten Kareliatik; eta ez dira geroztik itzuli. Hego-Karelia, horretara, Errusiako parte bihurtu zen.

**"SUOMI, LABURKI, SUEDIAREN KOLONIA IZAN ZEN
LUZAZ; IRLANDA, BRITAINIA NAGUSIARENA IZAN ZEN
BEZALA. BAINA ERRUSIA ONDOAN EGONIK, BETI IBILI
IZAN DIRA SUOMITARRAK BATETIK EDO BESTETIK
NOLA JAREGINGO".**



Artean suomi-eraren normalizazioa burutua da gaur egun. Hiztegi Batua 1950 hamarkadan burutu zen. Eta Suomi Estatuko elebitasun-eredua, egonkortua dago erabat. Suediar gutxiengoaren eskubideak harrigarriro errespetatu dira; Suomiko glotopolitika Suitzakoa edo Belgikakoa baino aisa "pertsonala" goa delarik.

Eskualde mailan, dena dela, eta areago Udalerriaren mailan, "lurraldetasuna" hartu da gidari; Belgikara eta Suitzara hurbilduz.

Politikoki, eta geografiari dagokionez, Suomi "Ipartar Multzuan" kokatua dago; gidari nagusi Suedian duelarik

Ikus, nolahi ere, lan hauek:

- *Constitutional Insurgency in Finland -Steven Duncan Huxley -SHS, Helsinki 1990.*

- *Ideology and Nationalism: the Finnish move to independence, 1809-11918 - Tracy X. Karner.*

- *The Structure and Development of the Finnish Language - Lauri Hakulinen - Indiana Univ., 1961.*

- *Ikus, euskaraz, Txillardegia, in Branka 3-4, 1967; 31-52, "Suomi-z zenbait jakingarri".*



SUOMI: LA LIBERACIÓN DE UNA NACIÓN EN EUROPA

Hagamos un breve repaso del nacimiento de Suomi (Finlandia). Con una población el doble que la de Euskal Herria, y una extensión geográfica muchísimo mayor, es un estado bilingüe, por una parte el sueco, y por otra el propio de Suomi.

Esta nación fue colonia de Suecia durante mucho tiempo. Y de estar bajo dominio de Suecia, pasó a estar en manos de Rusia en 1809.

En febrero de 1899 toda Europa se levantó en contra del zar, y en unos pocos días se recogieron medio millón de firmas contra la política opresora de Moscú. Incluso sufrió una guerra civil.

La normalización de esta nación se produjo en la década de los 50.

SUOMI: LA LIBÉRATION D'UNE NATION EN EUROPE

Faisons un bref historique de la naissance de Suomi (Finlande). Il s'agit d'une population deux fois plus importante que celle d'Euskal Herria, sur une étendue beaucoup plus grande, c'est un état bilingue parlant Suédois d'une part, et Suomi d'autre part.

Cet état fut colonie suédoise pendant longtemps, il fut également dominé par la Russie en 1809.

En 1899 tout l'Europe se souleva contre le tsar, et en quelques jours un demi-million de signatures furent recueillies dénonçant la politique répressive de Moscou. Il s'y déroula également une guerre civile. La normalisation de cette nation s'effectua durant les années 50.